

Ixiar Barandiaran Errandonea

D maila • 3 saria

Ataunen jaio nintzen 2005eko abuztuaren 1ean. Herriko Joxemiel Barandiaran eskolan egin nituen Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasketak eta ondoren, Bigarren Hezkuntzako ikasketak Beasaingo Loinazpe Institutuan hasi nituen. Gaur egun Ataunen bizi naiz eta Beasaingo Loinazpe Institutuan ari naiz DBH 2egiten.



ZIRELAKO GARA, GARELAKO IZANGO DIRA

1609. urtea zen. Garbiñe, 20 urteko neska bat zen, sorgina. Ataunen bizi zen, bera bakarrik, Aia auzoko baserri batean. Ataungo herrian, “Andralizetako Puri” bezala zen ezaguna. Norbaitek gaixotasunik bazuen, beregana jotzen zuten eta Garbiñek mota guztietako sendabelarrak eta sendagaiak edukitzen zituen. Mendian eta basoan aurkitzen zituen produktu guztiak, ez zen inoiz herrira jaisten. Fama ona zuen herrian bai, baina bazeuden oineko behatz txikitik hasi eta bururainoko kristauak, eta sorginei buruz gezurrak asmatu eta gaizki esaka ibiltzen ziren. Hainbat gauza pentsatzen ziren sorginei buruz: Emakume gaiztoak zirela, haien gorputza saltzen zutela, akelarreetan biluztu eta akerrekin dantza egiten zutela... Guztiak okerrak. Izan ere, sorginak emakume nekazariak ziren, naturaren bitartez zaintzen zirenak.

Garai hartan, Juan Valle Alvarado inkisidorea, Gipuzkoako bazterrak miatzen ari zen. Emakumeak, sorgin izateaz leporatzen zituen, inongo frogarik gabe, eta torturapean edukitzen zituen sorginak zirela onartu arte. Onartuz gero, zigor handiak edukitzen zituzten. Baina ukatuz gero, bizirik erretzen zituzten sutan.

Garbiñe bere baserrian zegoen, zaurientzat ukendua prestatzen. Halako batean, norbait ate joka entzun eta irekitzera joan zen. Ondoko baserriko Ramona zen. Sarri egiten zion bisita, lagun handiak ziren. Nahiz eta Ramona kristaua izan, Garbiñe errespetatu eta onartzen zuen. Sukaldera sartu eta berriketan hasi ziren.

-Arratsalde on Ramona! Zer moduz?- Galdetu zion Garbiñek.

-Ondo esan beharko! Senarra ehizara joan berri da eta bi untxi ekarri ditu jateko!

-Hilabeterako zer jan baduzue behintzat. Aizu, eta ibiltzen al duzu nik prestaturiko asun-ura ilea distiratsua izateko?

- Bai neska! Mesede ederra egin didazu.

-Pozten naiz. Gaur jaitsi al zara plazara?

-Bai, eta ez dakizu zer entzun dudan. Juan Valle Alvarado Lazkaora iritsi dela eta bertako 5 emakume erre dituela bizirik. Mendian harrapatu zituen, mantzanila biltzen, eta begira! Kontuz ibili Puri!- Ohartarazi zuen Ramonak.

-Kontuz ibiliko naiz. Eskerrik asko Ramona, bisitagatik. -Agurtu zuen Garbiñek.

Garbiñek aste asko etxean pasa zituen, ezkutuan eta mendira joan behar bazuen, kontu handiz ibiltzen zen, inork ez ikusteko.

Egun batean, baserriko ate hotsa entzun zuen. Ez zen Ramona, haren kolpeak gozoagoak ziren. Kolpe hauek bortitzak eta indartsuak ziren. Ez zen inorekin fidatzen, beraz ez zuen ireki.

-Señorita María Purificación Echeverría, ireki atea oraintxe bertan!- Entzun zen oihua kanpotik.

Garbiñe, ikaratuta, atea irekitzera joan zen. Atea irekitzerakoan, gizon zahar bat ikusi zuen, nahiko lodia baina altua. Beltzez zihoan jantzita eta jaka handi bat zeraman gainean. Gizon zakarra zirudien eta beldurra ematen zuen. Laguntzaile batzuk ere bazituen alboan, baina hauek ez zuten hainbesteko beldurrik ematen, gizon handiaren agindupean bizi zirela zirudien.

-Jaun Valle Alvarado inkisidorea naiz- hasi zen hizketan gizona- Eta salaketa bat jaso dugu, sorgina zarela esaten duena. Ondorioz, etxea aztertu behar dugu.- eta ezer esan gabe etxera sartu zen.

Garbiñe, isil-isilik bere atzetik joan zen. Baserria txikia zen, sukaldea eta egongela besterik ez zituen, baina berarentzat nahikoa zen. Sukaldean, su-baxuaren ondoan, menta-hosto batzuk zituen, saski batean gordeta eta inkisidoreak hori ikusi bezain laster, Garbiñe atxilotzeko agindua eman zien, eta bi laguntzaile hauek, indarrez atera zuten etxetik. Garbiñek oihu egiten zuen, saminez, amorruez. Gurdi batean sartu zuten, Ataungo beste auzoetako emakume gehiagorekin batera.

Lurrazpiko gotorleku moduko batera iritsi ziren. Gurditik bultzaka bota zituzten. Gela hura oso iluna zen. Bertan, beste hainbat emakume zeuden. Argal-argal zeuden, aurpegi zurbila eta arropa hautsiarekin, ez zuten batere itxura onik.

Egun asko pasa zituen han. Asteak, hilabeteak behar bada. Denbora oso geldo pasatzen zen kalabozo hartan. Hotz egiten zuen, eta egunean behin bakarrik jaten zuten, esne eta ogi apur bat. Emakume asko hiltzen ziren egunero gaixorik.

Beasaingo beste nekazari baten lagun ere egin zen, Simona. Ez zen oso hartzuna, baina bai entzule ona. Garbiñek, bere barruko tristurak, kezak eta haserreak kontatzen zizkion. Kristautasunak, sorginak deabruaren menpe zeudela pentsatzen zuten. Emakumeak gutxietsita egon direla historian zehar kontatzen zuen, eta oraingo emakumeen bidegabekeria, etorkizunean aldatzea zela bere ametsa. Garbiñek, beti galdetzen zion bere buruari, nor jarriko ote zuen bera hara eramanez salaketa. Galdera gehiegi, baina erantzunik ez.

Denbora asko pasa zen, eta Garbiñe geroz eta ahulago zegoen. Aste batzuen ondoren, Garbiñek ez zuen baldintza haietan biziraun, eta hil egin zen. Simonak aldiz, osasun nahiko ona zuen oraindik eta gogoan zituen Garbiñek esandako gauza guztiak. Handik bizirik irtetea lortzen bazuen, ondorengoei kontatuko zizkien denak, emakumeek etorkizunean, eskubide eta baldintza hobeak eduki zitzaten, Garbiñeren omenez.

1614. urtean inkisizioa desagertu egin zen. Alonso de Salazar y Frías inkisidoreak, berriz aztertu zituen lekukoak, salaketak eta prozesu osoa. Jende askorekin hitz egin zuen eta sorginkeriaz egindako aitorpenak, akusatu eta akusatzaileen imajinazioaren fruituak baino ez zirela

frogatu zen. Euskaldunek, oso barneratuta zuten kristautasuna baino lehenagoko erlijioa, eta kristautasunarekin nahasten zuten, baina ohitura horiek ez zuten inolako zerikusirik deabruarekin.

Simonak bizirik irtetea lortu zuen, gaixo eta larri izan arren. Hil aurretik bere bilobari pasa zion mezua, belaunaldiz belaunaldi pasa zezan: “ Zirelako gara, garelako izango dira”.